

Borrokak lotu nahian



NEKANE TXAPARTEGI
KAZETARI FEMINISTA

Bisita, bizipen eta hausnarketa egunak izan ditut maiatzekoak. Hor nabil, interseksionalitatea nola gauzatu, borrokak lotu nahian.

Lan egiten dudana LoRa irrati komunitariotik, Maiatzaren 1erako adierazpen askatasunari buruzko mahai ingurua antolatu genuen Palestina, Filipina eta Kurdistaneko kazetariekin. Nik, besteak beste, Euskal Herriko medioen itxiera eta jazarpen politikoa kontatu nituen. Beste behin harridura, inork gutxi baitaki Euskal Herrian inposatu eta nazioartean zabaldutako diskurtsoa nola eraiki duten. Publikotik ziurtzat jotzen dute beste herrialde horietan jazarpena dagoela, baina Europan? Kolonizazioa, asimilazio politikak, okupazioa, militarizazioa, tortura... itsasoz bestaldetik hasiko balira bezala. Berrirori ere ziurtapena: kolonien narratibak dirau.

Hamabosgarren feminizidioa Suitzan. *Ni una menos* taldeko txata. Salaketa egiteaz gain, autodefentsa feminista ikastaroa egingo dugu. Izen horrekin bataiatutako plazan argazkiak eta testuak zintzilikatuko ditugu. Azkenaldian gutxi irauten dute, gure ustez neo-nazi taldeek kentzen dituzte.

Aldi berean, 30 urte ihesita egon ostean, Venezuelatik bueltatu berri dira

Daviden izarra duten pegatina mugagabeak aurki daitezke kale eta tabernatan; ezker autonomoko bilgune sozialetan, berriz, "kufiya palestinarra" eramatea gaizki ikusia edo debekatua da

K.O.M.I.T.E.E Alemaniako antolakunde klandestinoko bi kide. Afari baten bueltan kontatu ziguten egunkariak normalizatzen dituzten diskurtsoen atzeko ezker mugimenduko drama. Ez dira berriak Alemanian Ekialde Hurbileko gaiak ezkerrean sortzen dituen kontrasteak. Azken urte eta hilabeteetan, ordea, Antideutsche deiturikoen jarrera ulertezina bilakatu da eta mugimendu osoa lehertu eta zatikatu dute, antifatik queerfeminismoraino.

Antideutscheek Israelen existentzia onartzen eta babesten dute, beren burua judutarren zaintzaile izendatuta. Zor

moral horrek ekartzen dituen ondorioak ignoratu, eta Israelen existentzia dudan jartzen duen oro antisemitatzat dute. Daviden izarra duten pegatina mugagabeak aurki daitezke kale eta tabernatan; ezker autonomoko bilgune sozialetan, berriz, "kufiya palestinarra" eramatea gaizki ikusia edo debekatua da. Borroka nola lotu gogoetatzeko nabilen bitartean, beste batzuek ez dute arazorik antifaxismoa eta proiektu kolonial bat bateratzeko.

Artikulua borobildu nahian, buruari kea darion bitartean, Iratxe Sorzabalen tortura aitortpenaren berri jaso dut. Emozio pila sortu dizkit, aurreko gogoe-tatik atera arazi. Bagenekiena, ozen esan eta salatu duguna, onartzeko pausoa eman du epaitegi espainiar batek. Beraz, bere amaz, alabaz, ingurukoez, espetxe-ko kideez, torturatuez eta bereziki emakume torturatu guztiez gogoratu naiz. Baita Iratxek idatzitako hitzez ere:

Biluztu zintuzten, biluztu ninduten/Jipoitu zintuzten, jipoitu ninduten/Bortxatu zintuzten, bortxatu ninduten/Elektrodoekin erre ziguten gorputz azala/Plastikozko poltsa batekin irato gintuzten/Baina bizirik gaude eta aske gara/Aitortu zaituzte. Aitortu naute. Aitortu gaituzte. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com